



AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR **BERRIOZARKO UDALA**

BERRIOZAR ETA ANTSOINGO UDALEKO HAUR ESKOLETAN EUSKARA NAHITAEZKOA DEN HAUR HEZITZAILEEN LANPOSTUETAN ALDI BATERAKO ARITZEKO IZANGAIEN ZERRENDA EGITEKO DEIALDIA.

1.- Arau Orokorrak.

1.1 Deialdia egiten da izangaien zerrenda bat osatzeko Berriozar eta Antsoingo Udaletako Haur Eskoletan euskara nahitaezkoa den haur hezitzaileen lanpostuak aldi baterako bete daitezzen, Berriozarko eta Antsoingo udaletan sortzen diren beharriaren arabera, 2020ko abenduaren 29an langileen deialdien arloko udal arteko kudeaketa-hitzarmenean oinarrituta.

Berriozarko Udalaren kasuan, izangaien zerrenda berri hau subsidiarioa izanen da honako hauei dagokienez:

- 2017ko uztailaren 17an 20170488 zenbakiarekin alkatetzaren ebazpenaren bidez onetsitako izangaien zerrenda.
- 2019ko ekainaren 17an 20190332 zenbakiarekin alkatetzaren ebazpenaren bidez onetsitako izangaien zerrenda.

1.2 Lanpostuek C mailako ordainsaria izanen dute, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzura aritzen diren langileei dagokiena. Era berean, plantilla organiko bakoitzak aurreikusitako ordainsari-osagarriak jasoko dituzte, baita hitzarmen kolektiboaren bidez lor litezkeenak ere.

1.3 Lanaldia osoa edo partziala izan ahalko da. Edozein kasutan, zerbitzuaren premietara egokituko dira eta administrazio organo eskudunek edozein unetan aldatu ahalko dituzte, aplikatzekoa den araudiak jasotakoarekin bat eginez.

1.4 Honakoak dira lanpostuan bete beharreko eginkizunak:

a) Hezitzaileek lagunduko dute Haur Eskolaren eguneroko kudeaketan, baita proposamenen antolaketan, prestaketan eta hausnarketan eta behaketa eta dokumentazio prozesuetan ere.

b) Hezitzaileek, proiektuak antolatu eta gauzatu dituzte gogoeta bidezko koordinazioan, hezitzaile gelakideekin batez ere baina baita Eskolako langile guztiekin ere, oro har.

c) Hezitzaileek haurren garapen integralaren prozesuko egoerak bideratzen dituzte:

- Afektiboak eta harreman sozialei eta ingurunearekikoei dagozkienak.
- Higienikoak eta elikadurarekin eta atsedenarekin lotutakoak.
- Haurraren garapen kognitiboari eta adierazpenekoari eta dagoen heltze uneari dagozkien egoerak.



AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR **BERRIOZARKo UDALA**

d) Hezitzaileak familiekin egoten dira eta haien seme-alaben hezkuntza prozesuari buruzko informazioa ematen diete, elkarrizketen bidez eta ohiko hartu-eman formal eta informaletan.

e) Honakoak ere badira hezitzaileen eginkizunak:

- Haurren ohitura prozesuak koordinatu eta aurrera eraman.
- Adierazpen lantegietan proposamenak eta proiektuak koordinatu, berritu eta gauzatu.
- Puntualak izan.
- Ikasle begikorik ez izan.
- Haurren garapena modu hezigarrian lagundu.
- Hezkuntza proiektua gauzatzeko beharrezko formazio, jai edo bestelako proposamen osagarrietan parte hartu.
- Eskolaren kanpoko irudi ona sustatu.
- Koordinazio bileretan parte-hartze proaktiboa izan.
- Berrikuntza pedagogirako proposamenak sortu.

f) Zuzendaritzak, Alkatetzak edo ordezeko organoek agindutako beste edozein lan, denak bere eskumenen esparruan eta bere maila eta kategoriaren barnean.

2.– Izangaiek bete behar dituzten baldintzak.

2.1 Deialdi honetan onartuak izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiarra izatea edo Europar Batasuneko estaturen batekoa edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatzen den estaturen batekoa. Era berean, parte har dezakete espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatuak herritarren ezkontideek, zuzenbidez bereizita ez badaude; halaber, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, zuzenbidez bereizita ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira, edo gorakoak, baldin eta haien kontura bizi badira.

b) Gutxienez 16 urte beteta izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko adina ez gainditzea.

e) Lanpostuaren eginkizunetan aritzeko beharrezko gaitasun fisiko eta psikikoa edukitzea.

d) Titulu hauetako bat edukitzea (edo eskuratzeko moduan egotea eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen): Haur Hezkuntzako maisu-maistren lanbidean aritzeko gaitzen duen Gradu Titulua, Haur Hezkuntzako espezialitateko maisu-maistren Titulua, edo urriaren 29ko 1394/2007 Errege Dekretuak araututako Haur Hezkuntzako Goi Mailako Teknikariaren Titulua. Ondorio horietarako, titulu baliokidetzat hartuko dira Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako Goi Mailako Teknikari Tituluaren egitura eta curriculum ezartzen dituen abuztuaren 25eko 93/2008 Foru Dekretuaren Lehen Xedapen Gehigarrian ezarritakoak; alegia, Haurtzaindegiko Teknikari Espezialista (Komunitatearentzako Zerbitzuen alorrekoa) eta Haur Hezkuntzako



AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR **BERRIOZARKO UDALA**

Teknikari Espezialista (Komunitatearentzako Zerbitzuen alorrekoa).

Atzerrian lortutako tituluak badira, homologazioaren egiaztatzea eduki beharko da.

e) Euskaraz jakitea, C1 mailaren titulua, EGA edo baliokidea dena aurkeztuz egiaztatua, edo eskatutako hizkuntza-eskakizuna duela egiaztatzen duen berriazko probaren bidez, Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko erakundeetan euskararen erabilera arautzen duen 103/2017 Foru Dekretuan ezarrita dagoenaren arabera.

f) Eginkizun publikoetan aritzeko desgaitu edo gabetua ez egotea eta inongo Administrazio Publikoren zerbitzutik kanporatua ez izatea. Espainiar ez beste nazionalitate bat duten izangaiak ezin dira egon, zigor edo auzi bidez, euren estatuaren funtzio publikoetan aritzeko gabetuta.

g) Haur eta Nerabeen Babes Sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legearekin bat, haur hezitzaileen lanpostuetan aritzeko baldintza da epai irmo baten bidez kondenarik ez izatea sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delitu batengatik, ezta gizakien salerosketarengatik ere.

2.2 Oinarri honetan jasotako baldintzak eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunerako bete beharko dira, baita hautapenaren prozedura aldiaren eta kontratazioak iraun bitartean ere.

3. Eskabideak.

3.1. Deialdiaren parte hartzeko eskabideak Berriozarko Udalaren Erregistro Orokor Elektronikoaren bidez <https://sedeelectronica.berriozar.es/eu/carpeta-ciudadana/> telematikoki aurkeztu beharko dira, NAN elektronikoa/ ziurtagiri elektronikoa edo CI@ve bidez sartuz. Eskabideetan izangaiak adierazi beharko dute hautaketa prozesuan parte hartzeko eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela, eta 3.2 oinarrian zehazten den dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko dute.

Eskabideak deialdi honen I. Eranskinean argitaratutako ereduari lotuko zaizkio.

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, 14. artikuluko 3. paragrafoan adierazitakoaren arabera, "Administrazioek prozedura jakin batzuetarako eta zenbait pertsona fisikoren kolektibotarako baliabide elektronikoen bidez haiekin harremanak izateko betebeharra ezarri ahal izango dute, baldin eta, gaitasun ekonomikoa, teknikoa, dedikazio profesionala edo beste arrazoi batzuk direla-eta, egiaztatuta geratzen bada beharrezko baliabide elektronikoak eskuratu eta eskura dituztela".

Era berean, 20/2020 Foru Legean, abenduaren 9koa, 2021. urteko Nafarroako Aurrekontu Orokorrekin buruzkoa, Nafarroako Administrazio Publikoek deitutako hautaketa-prozesuei buruzko Hamahirugarren Xedapen Gehigarrian, "Nafarroako Administrazio Publikoek ahalmena ematen zaie hautaketa-prozesuetako, lanpostuetan sartzeko edo lanpostuak betetzeko deialdietan



AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR **BERRIOZARKO UDALA**

eskabideak eta gainerako dokumentazioa elektronikoki aurkeztu behar dela exigitzeko”.

Eskabideak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izanen da, deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izanen da.

Eskabidean atzematen diren akats materialak edo egitezkoak ofizioz edo interesdunak eskaturik zuzendu ahalko dira, noiznahi ere.

3.2 Behar bezala bete ondoren, eskabideari agiri hauek gehituko zaizkio Erregistro Orokor Elektronikoan aurreikusitako formatuetako edozeinetan:

a) Nortasun Agiri Nazionalaren kopia edo izangaiaren nazionalitatea eta nortasuna frogatzen dituen beste agiri baliokideren batena.

b) Eskatutako titulazioaren kopia.

c) Euskararen ezagutza egiaztatzeko agiria edo euskara proba egiteko eskaera.

d) Espedientea formalizatzeko eta azterketa eskubideetarako 10,00 euro ordaindu izanaren ordainagiria (diru-sarrera egiteko kontua: ES84 2100 5184 5422 0009 8217, "La Caixa"). Transferentzia agindua honen alde egin beharko da: "Berriozarko Udala. Hezitzaile aritzeko hautaprobak".

Azterketa eskubideetarako tasak arautzen dituen ordenantza fiskalean (23. ordenantza) ezarritakoarekin bat, honako hauek aipatutako tasa ordaintzetik salbuetsita egonen dira:

a) %33 edo hortik gorako desgaitasun maila aitortuta duten pertsonak.

b) Hautapoben deialdia egin aurretik hilabete batez edo luzaroago lan-eskatzaile gisa izena emanda egon diren pertsonak. Salbuespen hori aplikatzeko baldintza izanen da inskribaturik egon diren bitartean eskainitako inolako lan egokiri uko egin ez izana eta lanbide sustapen, prestakuntza edo aldaketarako ekintzetan parte hartzeari uko egin ez izana, justifikaturiko kasuetan izan ezik, eta, horrez gainera, hilean lanbide arteko gutxieneko soldatetik gorakoa den diru-sarrerarik ez izatea.

Lan-eskatzailea dela frogatzeko, behar den Enplegu Bulegoak emandako agiria aurkeztu beharko da. Bertan, lan-eskatzaile gisa izena eman zueneko data agertuko da, eta, orobat, adieraziko da izena emanda egon den bitartean ez diola uko egin handik eskainitako inolako lan egokiri, ezta lanbide sustapen, prestakuntza edo moldaketarako ekintzetan parte hartzeari ere, justifikatutako kasuetan izan ezik.

Behar den tasa ez ordaintzea nahikoa arrazoi izanen da izangaia hautaketa prozeduratik baztertzeko.

Ez da azterketa eskubideengatik ordainduta itzuliko, baldin eta izangaia baztertzen bada interesdunari egozten ahal zaizkion arrazoiengatik, esate baterako, beharkizunak ez betetzeagatik edo deialdian eskatutako agiriak ez aurkezteagatik.

4.- Behin-behineko zerrendak.



AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR **BERRIOZARKO UDALA**

Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda Berriozarko Udalaren webgunean argitaratuko da (<http://www.berriozar.eus>).

Argitaratzen denetik bost egun balioduneko epean, izangaiek aukera izanen dute erreklamazioak aurkezteko eta eskabidean egindako akatsak zuzentzeko. Horretarako Udal Erregistroan eskabidea aurkeztu beharko dute.

Izangai bazterturik ez badago, zuzenean behin betiko zerrenda argitaratuko da, hauta-probak egiteko egun, ordu eta tokia adierazita.

5.- Behin betiko zerrendak.

Behin ebatzi direnean aurkeztutako alegazioak, Alkatezak ebazpena emanen du izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onesteko. Berriozarko Udalaren iragarki taulan eta udal webgunean (<http://www.berriozar.eus>) argitaratuko dira, baita aurreikusita dauden hautaprobak egiteko egun, ordu eta tokia ere.

Izangai onartu eta baztertuen zerrenden argitalpena jakinarazpentzat hartuko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikulua aurreikusi ondorioetarako.

Onartuen zerrendan agertzea ez da nahikoa deialdi honetan eskatutako betebeharrak betetzen direla aitortzeko. Izan ere, kontratazioa gauzatzeko deia egiten zaienean izangaiek aurkeztu behar duten dokumentazioa aztertuta, eskaturiko baldintzaren bat behar epean eta moduan betetzen ez dutela ondorioztatzen bada, interesdunek deialdi honetan parte hartzeagatik eskuratutako eskubide guztiak galduko dituzte.

6.- Epaimahaia.

6.1 Epaimahaia kide hauek osatuko dute:

1. Epaimahaiburua: Sagrario Ortigosa Lekunberri and., Berriozarko Udaleko zinegotzia.

Ordezkoa: Mikel Etxeberria Agirre jn., Berriozarko Udaleko zinegotzia.

2. Mahaikidea: Isabel Oyeregui Sola and., Berriozarko Urtxintxa Haur Eskolako zuzendaria.

Ordezkoa: titularrak izendatzen duen pertsona.

3. Mahaikidea: Cielo Astiz Lacunza and., Antsoingo San Cristobal Haur Eskolako zuzendaria.



AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR **BERRIOZARKO UDALA**

Ordezkoa: Antsoaingo San Cristobal Haur Eskolako hezitzaile bat, oraindik zehazteko dagoena.

4. Mahaikidea: Mónica Bidegain Iriarte and., Berriozarko Urtxintxa Haur Eskolako hezitzailea.

Ordezkoa: Berriozarko Urtxintxa Haur Eskolako hezitzaile bat, oraindik zehazteko dagoena.

5. Mahaikidea: Berriozarko Udaleko ordezkari sindikalak izendatutako pertsona.

Ordezkoa: Berriozarko Udaleko ordezkari sindikala, oraindik zehazteko dagoena

6. Mahaikidea: Antsoaingo Udaleko ordezkari sindikalak izendatutako pertsona.

Ordezkoa: Antsoaingo Udaleko ordezkari sindikala, oraindik zehazteko dagoena

7. Mahaikide-idazkaria: Bidane Zabalza Alonso and., Berriozarko Udaleko Giza Baliabideetako gerentea.

Mahaikide-idazkari ordezkoa: titularrak izendatutakoa.

Epaimahaia hautaprobak hasi baino lehen eratu da.

6.2 Epaimahaia ezin izanen da eratu eta ezin izanen du jardun, gutxienez kideen gehiengo osoa bertan izan gabe.

Halaber, epaimahaiaren eraketak eta jardunak balio izateko, epaimahaiburuak eta mahaikide-idazkariak (edo haien ordezkoe) bertan egon beharko dute.

6.3 Epaimahaikideek parte hartzeari uko egin beharko diote Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean aipatzen diren abstentzio arrazoietako bat gertatzen denean. Deialdia egin duen organoari horren berri eman beharko diote.

Izangaiek, halaber, zilegi dute epaimahaikideak errefusatzea, egoera horietako bat gertatzen denean.

6.4 Deialdiko oinarriak ulertu eta aplikatzerakoan sortzen diren afera guztiak gehiengoz erabakiko ditu epaimahaia.

6.5 Epaimahaia aholkulari adituen laguntza izan ahalko du, proba batzuetan nahiz guztietan. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dute epaimahaia lagunduko.

7.- Oposizioaren garapena.



AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR **BERRIOZARKO UDALA**

7.1 Oposizioaldia hasi baino lehen, euskararen proba eginen dute 2.1. oinarrian eskatzen den ezagutza agiri bidez frogatu ez dutenek eta proba hura egitea eskatu badute. "Gai" kalifikazioa lortzen ez duten izangaiak hautapen prozesutik kanpo geldituko dira.

7.2 Hautapropa, ziur aski, 2021eko irailetik aurrera eginen da. Onartutako eta baztertutakoen behin betiko zerrendaren ebazpenean adieraziko dira probaren tokia, eguna eta ordua.

7.2.1. Hautapen prozesua proba baten bidez eginen da. Proba horretan 50 galdera erantzun beharko dira deialdi honen II. eranskinean ageri diren gaiei buruz. Galdera bakoitza erantzuteko hainbat aukera eskainiko dira, baina bakarra izanen da zuzena.

Probarako dei bakarra eginen da. Hartara joanen dira izangaiak, Nortasun Agiri Nazionala, Pasaportea edo Gidabaimena aldean dutela. Agertzen ez diren edo aipatutako agirien bidez nortasuna egiaztatzen ez duten izangaiak baztertuta geldituko dira.

Proba egiteko ez da inolako testurik erabiltzen ahalko, ezta kalkulagailurik edo bestelako materialik ere, bolaluma urdina edo beltza salbu.

7.2.3 Probak 50 puntuko gehieneko balorazioa izanen du. Okerreko erantzun bakoitzarengatik asmatze baten balioaren laurdena kenduko da. Izangaien zerrendan sartuko dira gutxienez hautaprobaren ezarritako gehieneko puntuazioaren %30 lortzen dutenak; hau da, 15 puntu.

Aurkezten ez diren izangaiak oposiziotik kanpo geldituko dira.

Probaren kalifikazioa bukatuta, Epaimahaiak Udaleko webgunean argitaratuko ditu behin behineko emaitzak eta izangaiak bost egun balioduneko epean alegazioak aurkeztu ahalko dituzte. Epaimahaiak alegazioen gaineko erabakia hartuta, behin betiko kalifikazioak onartuko dira eta Udalaren webgunean argitaratuko dira. Izangai gaindituak eta baztertuak ere adieraziko dira.

Desgaitasun aitortua duten izangaien kasuan, hautapropa egiteko egokitzapenak bideratuko dira, denboraren nahiz balibideen aldetik, eskabidean aurretik horretarako eskaera egin badute.

Proban edozein iruzur egiteak berehalako kanporatzea ekarriko du, bidezko jarduketa penalak deusetan galarazi gabe.

8.- Zerrenda

Probak egin eta gero, izangaien zerrenda osatuko da, puntuazioaren arabera. Aipatutako zerrenda www.berriozar.eus webgunean ikusi ahalko da.

Berdinketak Kalifikazio-Epaimaiak egindako zozketa bakarraren bidez ebartziko dira. Berdinketa egoeran dauden pertsona guztien artean bat aukeratuko da, zoriz. Aukeratutako pertsonaren



AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR **BERRIOZARKO UDALA**

izen-abizenen arabera ebatziko dira berdinketak, alfabetikoki. Zozketaren emaitza Berriozarko Udalaren webgunean eta iragarki-taulan argitaratuko da.

9.- Aldi baterako kontrataziorako dei egitea.

Aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenda bakoitzaren kudeaketa, bata zein bestea, modu autonomoan, Berriozarko eta Antsoingo Udalei dagokie, eta haiek arduratuko dira dagokion zerrendaren kudeaketatik eratortzen diren gorabehera eta erreklamazio guztiez.

Hau da, zerrendak osatu ondoren, Udal bakoitzak bere aldetik kudeatuko ditu, Udal bakoitzak onartutako araudiaren arabera.

Deia jasotzen duten pertsonak eskatutako baldintzak betetzearen gaineko egiaztagiria aurkeztu beharko ditu. Halaber, aurkeztuko du epai irmo baten bidez sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delitu batengatik edo gizakien salerosketarengatik kondenarik ez izatearen agiria. Horretarako, Sexu-Gaizkileen Erregistro Nagusiaren agiri negatiboa aurkeztuko du edo Udalari baimena emanen dio Sexu-Gaizkileen Erregistro Nagusian egiaztagiria eskatzeko.

Izangai nazionalak ez direnek, Sexu-Gaizkideen Erregistro Nagusiko agiri negatiboa aurreko paragrafoan esan bezala aurkezteaz gain, zigor-kondenei buruzko egiaztagiri negatiboa aurkeztu beharko dute, jatorrizko herrialdeko agintariek emana eta Sexu-Gaizkileen Erregistro Nagusia arautzen duen abenduaren 11ko 1110/2015 Errege Dekretuaren 3. artikuluko 1. puntuan jasotako delituei buruzkoa.

10.- Datuen babesa.

2016/679 (EB) Erregelamenduaren (DBEO) 13. artikuluan ezarritakoari jarraituz, izangaiei ondokoa jakinarazten zaie:

- Berriozarko Udala da parte-hartzaileek deialdian emandako datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna.
- Datuen tratamenduaren xedea da langileak hautatzea deialdi honetako lanpostuak betetzeko.
- Oinarri juridikoa hau da: DBEOren 6.1.c) artikulua, tratamenduaren arduradunari aplikagarri zaion legezko betebeharrak bat betetzeko behar den tratamendua, eta DBEOren 6.1.b) artikulua, kontratu bat gauzatzeko behar den tratamendua, interesduna kontratu horren parte bat denean, edo berak eskatuta kontratu aurreko neurriak aplikatzeko beharrezkoa dena.



AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR **BERRIOZARKO UDALA**

- Datuak zein xedetarako bildu diren, xede hori lortzeko beharrezkoa den denbora guztian gordeko dira, bai eta deialdiaren edo datuen tratamenduaren ondorioz izan daitezkeen erantzukizun guztiak zehaztu ahal izateko ere. Artxiboen eta dokumentazioaren gaineko araudian ezarritakoa aplikatuko da (Nafarroako Toki Entitateen agiriak ebaluatu eta ezabatzeko jarraibideak).
- Datuen komunikazioa eginen da legeak aurreikusitako kasuetan (5/2015 LED, urriaren 30ekoa), gardentasunaren atarian argitaratzea barne, 5/2018 Foru Legearen 19.2.f artikuluekin bat.
- Titularrek eskubidea izanen dute datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko, tratamendua mugatu, kontra egiteko eta datuak eramateko, eta eskubidea gauzatu ahal izanen dute udal-bulegoetan, datuak babesteko ordezkariaren bidez, dpd@berriozar.es helbidean, edo webgunearen bidez (www.berriozar.eus). Azken horretan, argibide gehiago aurkituko dute.
- Halaber, eskubidea dute erreklamazioa aurkezteko Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan (aepd.es), uste badute datuen tratamendua ez datorrela bat indarrean dagoen araudiarekin.

11. Errekurtsoak.

Deialdi honen aurka, baita haren oinarrien eta aplikatzeko egintzen aurka ere, hautaz, ondoko errekurtsoetako bat jar daiteke:

a) Berraztertze errekurtsoa, egintzaren organo egileari zuzenduta, hilabeteko epean, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-helegitea, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko arlo bereko salari zuzenduta, bi hilabeteko epean, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

c) Gora jotzeko helegitea, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzenduta, hilabeteko epean, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

Kalifikazio-Epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke alkateari zuzendua –Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. Artikuluan aipatutako egintzak, hain zuzen- hilabeteko epean, egintza edo erabakia jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Berriozarren, 2021eko ekainaren 28an. Raúl Maiza González alkatea.



AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR
BERRIOZARKO UDALA

I. ERANSKINA

D/D ^a	<i>jn./and</i>	Doc. N ^o <i>Agiri zk.</i>
Domicilio. <i>Helbidea</i>		C.P. <i>P.K.</i>
Localidad <i>Herria</i>	N ^o teléfono <i>Telefono zk.</i>	Correo electrónico <i>Posta elektronikoa</i>
(táchese lo que no proceda) en nombre propio o en representación de <i>(ezabatu behar ez dena) bere izenean edo ondoko honen izenean :</i>		
D/D ^a	<i>jn./and</i>	Doc. N ^o <i>Agiri zk.</i>
Domicilio. <i>Helbidea</i>		C.P. <i>P.K.</i>
Localidad <i>Herria</i>	N ^o teléfono <i>Telefono zk.</i>	Correo electrónico <i>Posta elektronikoa</i>

Ante VD. comparece y como mejor proceda dice:

Que, vista la convocatoria para la constitución de una relación de aspirantes a la contratación temporal del puesto de trabajo de educador/a infantil en los puestos en los que el euskera es preceptivo, para las escuelas infantiles municipales de los Ayuntamientos de Berriozar y Ansoáin.

Zure aurrean agertu eta azaltzen dut:

Berriozarko eta Antsoaingo Udaletako haur eskoletan euskara derrigorrezkoa den lanpostuetan haur hezitzaile izateko aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenda osatzeko deialdia egin dutela.

SOLICITA

Ser admitido/a a la citada convocatoria, indicando:

Que con el fin de acreditar el nivel de euskera

a/ tiene certificación oficial

b/ solicita realizar prueba de nivel de euskera

Que cumple en tiempo y forma todos y cada uno de los requisitos exigidos en las bases de la presente convocatoria.

ESKATZEN DUT

Aipatutako deialdian onartua izatea eta, horretarako, zera azaltzen dut:

Euskara maila egiaztatzeko

a/ ziurtagiri ofiziala aurkezten dudala

b/ euskara proba egitea eskatzen dudala

Deialdian eskatutako baldintza guztiak betetzen ditudala, garaiz eta forman.

Berriozar, (fecha / *data*) _____

(firma / *sinadura*)

INFORMACIÓN BÁSICA DE PROTECCION DE DATOS. Responsable del tratamiento de los datos personales aquí registrados: Ayuntamiento de Berriozar. Finalidad: selección de personal para la provisión de puestos de trabajo objeto de esta convocatoria. Derechos: acceso, rectificación, supresión. Más información en la base 10 de la convocatoria.

DATUEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO ARGIBIDEAK. Hartutako datu pertsonalen tratamendu-arduraduna: Berriozarko Udala. Xedea: deialdi honen helburua diren lanpostuak hornitzeko langileak hautatzea. Eskubideak: sarbidea, zuzenketa, ezabaketa. Informazio gehiago deialdiaren 10. oinarrian.



AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR
BERRIOZARKo UDALA

II. ERANSKINA

Gai zerrenda

1. Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua eta Proposamen Pedagogikoa.
2. Eskola Berria eta Decroly, Montessori, Freinet eta Pestalozziren ideiak. Abangardiako mugimendu pedagogikoak: Vigotski, Bruner, Ausubel eta Emmi Pikler. Italiako Reggio Emiliako Udalaren haur eskoletan aplikatutako Loris Malaguzziren pedagogia. Korrante psikopedagogiko nagusien eragina Haur Hezkuntzan.
3. Hezitzailearen eginkizuna Haur Hezkuntzan. Eskumenak, trebetasunak eta jarrerak. Haurren eta hezitzailearen arteko harreman interaktiboak.
4. Hezkuntzako esku-hartzearen oinarriak. Ikuspuntu globalizatzailea. Ikasketa esanguratsua. Haurrak egiten duen ezagupenen erdiespena eta hezitzailearen laguntza pedagogikoa.
5. Behaketa eta esperimendazioan oinarritutako metodologia. Laneko programazioa epe labur eta luzera. Egindako lanaren dokumentazioa.
6. Entzutearen pedagogia. Proiektuak eta proposamenak mugen eta programazioen orde. Entzutea, dokumentazioaren oinarria.
7. Lantegiak, haurren interesean eta jardueran oinarritutako metodologia gisa. Adierazpen artistikoa: teknikak eta baliabideak. Adierazpen artistikoaren garapena haurrengan.
8. Garapen ebolutiboa 0-3 urteko haurrengan.
9. Psikomotrizitatea eta bere eginkizun globalizatzailea, garapen kognitibo, afektibo eta mugitzekoa. Kontzeptua eta definizioak. Hezkuntzako psikomotrizitatearen jatorria.
10. Esku-hartzea familiarekin. Familiaren parte hartzea haur eskolaren heziketa zereginetan. Komunikazio eta lankidetzaren bideak. Bilerak gurasoekin, helburuak, planifikazioa eta balorazioa.
11. Jolasa, haurren garapen orokorrean. Jolasa, baliabide didaktiko gisa. Haur jolasaren garapena. Jolas heuristikoa. Jolas eta jostailu motak. Jolasa laguntzen duten material eta baliabideak. Hezitzailearen egitekoa haurren jolasean. Jolas eremuak eta jolastokia.
12. Espazio eta denboren antolaketa eta ebaluazioa. Eguneroko erritmo eta ohiturak. Denbora antolatu eta banatzeko ereduak: banakako jarduerak eta taldekakoak. Espazioen antolaketa. Txokoak, jolaserako eta atsedenerako eremuak.



AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR
BERRIOZARKo UDALA

13. Martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretua, Haur Hezkuntzako Lehen Zikloa arautzen duena Nafarroako Foru Komunitatean.